

TABAKALERA



CHILLIDALEKU

**EGONALDI
DEIALDIA:**

**TABAKALERA –
CHILLIDA LEKU:
ARTEA ETA
PAISAIA**

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus



1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, egonaldi-programa bat jarri du martxan, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa horren helburu nagusia ekoizpen-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpena berarekin.

Chillida Leku museo berdingabea da, artelan handi gisa sortua. Bertan, arteak eta naturak euren kabuz egiten dute bat, modu naturalean. Eduardo Chillidaren lanaren balioa azpimarratzeaz eta gordetzeaz gainera, Chillida Lekuk hezkuntza artistikoarekin lotutako jarduerak egiten ditu, gogoeta, esperimentazioa eta ekintza sustatzen duten jardueren bitartez.

Arte garaikidearen, espazio publikoaren eta paisaiaren artearekin lotutako arte-sorkuntza eta -ikerketak sustatzeko asmoz, Chillida Lekuk eta Tabakalerak artisten egonaldi-programa bat jarri dute abian, lankidetzan.

Programa horren bitartez, sare eta zirkuitu artistiko berriak sustatu nahi dira, eta hainbat eragilek eta beren proiektuek partekatu dezaketen espazio bat sortu, nazionalitate desberdinetako egoiliar eta eragile gonbidatuen artean izan litezkeen kolaborazioak sustatzeko.

2. XEDEA

Programaren xedea da Chillida Lekuren (Hauser & Wirth San Sebastián) eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren artean egonaldi artistiko bat eskaintzea Donostian.

Deialdia edozein nazionalitatetako artistentzat da, baldin eta testuinguru artistiko berriak aztertu nahi badituzte eta artearekin eta paisaiarekin lotutako ikerketako eta sorkuntza artistikoko proiektu bat garatu nahi badute.

Egoitza **zortzi astetan** garatuko da, **2023ko urritik abendura**. Espazioa, testuingurua eta denbora eskainiko da proiektu artistikoa Chillida Lekuko eta Tabakalerako instalazioetan garatzeko.

Deialdira aurkezten diren proiektu guztien artean **proposamen bat aukeratuko da**.



3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo eskusiboki arte garaikidearen esparruan proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, dela arte garaikidearen eremuan jarduten dutelako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

4. BATZORDEA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak batzorde misto batek balioetsiko ditu. Batzordea bi erakundetako ordezkariak eta kanpoko eragile gonbidatuek osatuko dute. Balioztapena irizpide hauen arabera egingo da:

1. Berrikuntza eta originaltasuna. Jarduerari eta testuinguruari eginiko ekarpen-maila ere balioztatuko da.
2. Proiektuaren kalitatea eta sormena.
3. Proiektuaren garrantzia arte eta paisaiaren, arte eta naturaren, eta/edo arte eta espazio publikoaren arteko harremanari dagokionez.
4. Bideragarritasuna eta Chillida Lekuk eta Tabakalerak dituzten bitarteko eta lan-espazioetarako egokitzapen-maila.
5. Chillida Lekuren eta Tabakaleraren egoitza-programen eta horien tokiko sareen testuinguruan arte-jardueraren fluxu-kanalak sortzeko gaitasuna.

Ezinbestekoa izango da gaztelaniaren, ingelesaren edo euskararen oinarritzko ezagutzak izatea.

Batzordeak itzarote-zerrenda bat sortuko du lehen hautagaiak, arrazoi pertsonalak tarteko, ezin badu egoitza egin.

Batzordeak deialdia esleitu gabe utz dezake, baldin eta irizten badio proiektuek ez dutela nahikoa merezimendu.

5. EGONALDIRAKO HORNIDURA

Programak prestazio hauek izango ditu:

1. Joan-etorriko bidaia, artistaren bizilekutik edo egoitza egin aurretik dagoen lekutik, adjudikaziodunaren borondatez.



2. Aseguru medikoa, egonaldiak iraun bitartean.
3. Apartamentua, erabat hornitua (sukaldea, bainugela eta logela, lanerako gune txiki batekin, Interneterako sarbidea wifiarekin), Tabakaleran.
4. Lan-estudioa Tabakalerako Artisten Gunean. Horretarako, Tabakalerak ezaugarri desberdinetako estudioak ditu, hornidura hauekin: oinarrizko altzariak, ur-hartunea hurbil, korrante elektrikoa, argiztapena eta Interneterako sarbidea wifiarekin. Estudioa aukeratutako proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta egokituko da.
5. Tabakalerako baliabide guztietarako sarbidea, bai eta Medialaben baliabide eta funtsetara sartzeko aukera ere.
6. Chillida Lekuko instalazioetarako sarbidea egonaldiak iraun bitartean.
7. 2.000 € (1.000 € egonaldiko hilabete bakoitzeko, zergak eta atxikipenak salbuetsita), dieta eta mantenuaren kontzeptuan, egoitzak iraungo dituen 8 asteetarako.
8. Gehienez 1.500 €-ko zuzkidura ekonomikoa egoitzaren esparruan proiektua garatzeko; horretarako, aldez aurretik aurrekontua aurkeztu eta onartu beharko da.
9. Proiektuaren garapenean laguntza kontzeptual eta artistikoa, bai eta laguntza ere testuinguruko eragile eta proiektuetara helarazteko, egoiliarak hala eskatzen badu.
Deialdi honetan ez dira sortzaile batek baino gehiagok edo kolektiboek aurkeztutako proiekturik onartuko.

6. EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiak 8 aste iraungo ditu, eta 2023ko urritik abendura bitartean garatuko da.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Deialdian parte hartze hutsak honako konpromiso hauek onartzea dakar:
- Dagoeneko adjudikatuta dagoen eskaera bat baztertu egin behar bada, hautagaiak nahikoa aurrerapenarekin jakinarazi beharko du.
 - Adostutako datetan lan-espaziotik kanpo egoten bada behar bezala justifikatu gabe, egonaldia eta kasu bakoitzean emandako laguntzak bertan behera utzi ahal izango dira.



- Egoitza bera edo haren inguruan sor daitezkeen jarduerak Chillida Lekuren eta Tabakaleraren programazioan sar daitezke, erakunde horiek egoitzen programen eta lagatzen dituzten lan-espazioen inguruan egiten dituztenetan.
- Egoitzan zehar, artista egoiliarak bi tailer emango ditu Chillida Lekun, bi larunbatetan, familia edo helduentzat.
- Chillida Lekutik eta Tabakaleratik igaro ondoren, egoiliarak bere egonaldiari buruzko memoria bat aurkeztu beharko du.
- Egonaldia obra baten ekoizpenarekin edo argitalpen batekin lotuta badago, Chillida Leku eta Tabakalera izenak agertu beharko dira kredituetan.
- Egoitzak ez du aukerarik emango erakusketarik egiteko zentroetan, baina proiektuaren garapenaren aurkezpen publikoa egitea ahalbidetuko du.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdian izena emateko epea irekita egongo da **2023ko otsailaren 23tik 12:00etan (GMT +01:00) apirilaren 03ra arte 12:00etan (GMT +01:00)**. Deialdien ebazpena **2023ko maiatzaren 03an** jakinaraziko da.

Hautagaiak jakinarazpena egiten denetik astebeteko epea izango du egonaldia onartzen duela berresteko.

Tabakalerako webgunearen bitartez eman beharko da izena, online inprimakia beteta. Agiriak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dira, eta ingelesezko laburpen bat ere jaso beharko da. Agiriak jarraian ezarritako ordenan aurkeztu behar dira:

1. Harremanetarako datuak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, harremanetarako telefonoa, jaiotze-data eta identifikazio-zenbakia edo pasaporteak.
2. Proiektuaren azalpena eta berau Chillida Lekuren eta Tabakaleraren arteko egonaldian gauzatu nahi izatearen arrazoiak (500 hitz gutxienez, 1.000 hitz gehienez).
3. Egin beharreko proiektuaren gutxi gorabeherako aurrekontua, bai eta beharizan guztien aurreikuspena ere.
4. Lana edo proiektua ilustratzen lagun dezakeen material grafikoa edo beste material batzuk.
5. CVa eta biografia laburra (500 hitz).
6. Aurretik egindako lau lan gutxienez, horietako bakoitzaren irudiekin.



Agiriak PDF agiri bakar batean erantsi behar dira (gehienez 10 mega eta 10 orrialde). Artxiboaren izena hau izango da: izena_abizena_chillidaleku_tabakalera; adibidez: mara_renart_chillidaleku_tabakalera

Agiriak edo dosierra gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira; hala ere, ingelesezko edo gaztelaniazko laburpen bat jaso beharko da beti, dosierra euskaraz aurkezten bada.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek, bai eta aukeratutako onuradunek ere, bermatuko dute Chillida Lekuri eta Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuzkoa eta/edo ikus-entzunezkoa (dela (i) eskaeraren esparruan; dela, hala badagokio (ii) oinarri hauen xede diren baliabideez hornitutako proiektua gauzatzean) jatorrizkoa dela eta ez dituela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualaren eskubideak. Ondorioz, Chillida Lekuren, Tabakaleraren eta/edo horien hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute hirugarrenek material horiekin lotuta planteatzen dituzketen jabetza intelektualari buruzko erreklamazioen aurrean, eta erakunde horiei kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiete kontzeptu horiengatik egin daitezkeen erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartuz gero, onuradunek baimena ematen diete Chillida Lekuri eta Tabakalerari haiei ematen dieten dokumentazio grafikoa, testuzkoa eta/edo ikus-entzunezkoa erabiltzeko edozein euskarritan, oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta horiek jaso dituen proiektua gauzatzeko helburu bakarrarekin.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan ezta gorago aipatutako dokumentuei eta material grafiko, testuzko eta/edo ikus-entzunezkoei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean ere; horiek materiala sortu duten onuradunen esku egoten jarraituko dute.



10. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Hautagaiei eta parte-hartzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela Chillida Lekuri eta Tabakalerari eskaeraren aurkezpenaren unean eta oinarri hauen xede den baliabideekin hornitutako proiektuaren exekuzioan emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita ematen diren laguntzak baliatzea eta laguntza horiekin hornitutako proiektua hedatzea ere.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, legeak jakinarazteko betebeharrak hori ezartzen duenean. Halaber, eta II. klausulan xedatutakoari jarraikiz, zuzkiduren onuradunen izena eta irudia hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie Chillida Lekuri eta Tabakalerari oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta haiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituzten jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du deialdian parte hartu. Hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, zuzkidurak ematea eta baliatzea kudeatzeko ezinbestekoa den epean gordeko dira hautagaien eta/edo parte-hartzaileen datu pertsonalak, gehi Chillida Leku eta Tabakaleraren lege-betebeharrak betetzeko nahitaez gorde beharreko kontserbazio-epean.

Nolanahi ere, hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie eskubide hauek izango dituztela: (i) datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien tratamendua mugatzeko, datuak lekualdatzeko edo datuen tratamendua aurkaratzeko eskubidea, pgaraikideak@tabakalera.eus helbide elektronikora idatzita; eta (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat jartzeko eskubidea, bereziki bere eskubideak baliatzeko aukerarik izan ez badu.

11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako onuradunek berariaz baimena ematen diete Chillida Lekuri eta Tabakalerari (i) beren irudia

TABAKALERA



CHILLIDALEKU

erregistratzeko, bitarteko tekniko egokien bidez (argazkia, bideoa, etab.); eta (ii) irudi horiek eta haien izena Chillida Lekuren eta Tabakaleraren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, haien kontrolpean edo hirugarren kolaboratzaileen kontrolpean; horren helburu bakarra, betiere, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzea izango da. Baimen hori ezeztagarria da.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek.

Info+: pgaraikideak@tabakalera.eus

www.tabakalera.eus